


23

# EUSKADIKO ORKESTRA

24



# DUTILLEUX STRAUSS

4

Ekaina / Junio

19:30

[euskadikoorkestra.eus](http://euskadikoorkestra.eus)

Pamplona / Iruña  
BALUARTE

# EUSKADIKO ORKESTRA

Zuzendari Titularra / Director Titular:  
**Robert Treviño**

## KONTZERTINOA

### CONCERTINO

Igor Yuzefovich

## I BIOLINAK / VIOLINES I

Beatrice Gagiu (1) (5)

Xabier de Felipe (4)

José Ignacio Aizpiri

Inmaculada Aramburo

Laura Balboa

Irene Echeveste

Marie Gaillard

Alexandre Kozouline

Oscar López

Maite Menéndez

Larraitz Oiartzabal

Ortzi Oihartzabal

Itziar Prieto

Maialen Rezabal

Cristina Vértiz

2

## II BIOLINAK / VIOLINES II

Raquel Cortinas (2)

Xabier Gil (2)

Mikel Ibañez (4)

Marie Héloise Arbus (5)

Amaia Asurmendi

Nathalie Dabadie

Virgile Demillac

Ludwik Hamela

Anne-Marie Harmat

Antoni Kosc

Ricardo Ruiz

Igor Torre

## BIOLAK / VIOLAS

Delphine Dupuy (2)

Pawel Krymer (2)

Monika Mazur (4)

Maite Abasolo

Esther Alba

Pascal Arnaud

Natacha Dupuy-Scordamaglia

Justyna Janiak-Krymer

Arkaitz Martínez

Sergio Montero

Yann Seyrac

## BIOLONTXELOAK

### VIOLONCHELOS

Juan Ignacio Emme (2)

Gabriel Mesado (2)

Flore Lefevre (4)

Natalia Díaz

Jon Larraz

Beatriz Linares

Pascale Michaud

Ian Swedlund

## KONTRABAXUAK

### CONTRABAJOS

Arkadiusz Maciejski (2)

Paloma Torrado (2)

Marc Sirera (4)

Victor Bogdanov

Mehmet Sönmez

Pierre Torrent

## FLAUTAK / FLAUTAS

Hélène Billard-Alirol (2)

Bruno Claverie (2)

Ander Erburu

Oihana Kontxeso

## OBOEAK / OBOES

Óscar Diago (2)

Javier Lecumberri (2)

Pascal Laffont

Hervé Michaud

## KLARINETEAK

### CLARINETES

Luis Cámara (2)

Juan Navarro (2)

Stéphane Langlois

Sara Zufiaurre

## FAGOTAK / FAGOTES

Marco Caratto (2)

François Proud (2)

Yuan Dai

Anne Charlotte Lacroix

## TRONPAK / TROMPAS

Marcos Cruz Pardeiro (2)

Adrián García Carballo (2)

Cristian Palau (2)

Ignacio Sánchez (3) (5)

Jean-Luc Casteret

Xabier Sarasa

Salvador Tudela

## TRONPETAK / TROMPETAS

Didier Bousquet (2)

Bernabé García (2)

Jesús Castillo

Miguel Echepare

## TRONBOIAK / TROMBONES

Arnaud Mandoche (2)

Christophe Sánchez (2)

Frédéric Boulan (5)

Daniel Ruibal

## TUBA

Oscar Abella (2)

## TINBALAK ETA PERKUSIOA

### TIMBALES Y PERCUSIÓN

Igor Arostegui (2)

Anthony Lafargue (2)

Héctor Marqués (2)

Irene Rodríguez (3) (5)

Xabier Peña

## HARPA / ARPA

Iván Bragado (2)

(1) Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino

(2) Bakarlaria / Solista

(3) Bakarlari-laguntzailea / Ayuda de solista

(4) Lehen tuttia / Primer tutti

(5) Aldi baterako kontrataazioa / Contratación temporal

# DUTILLEUX STRAUSS



**ROBERT TREVÍÑO**  
Zuzendaria ° Director



**ELENA SANCHO PEREG**  
Soprano ° Soprano

## EGITARAUA ^ PROGRAMA

|

### **HENRI DUTILLEUX** (1916-2013)

#### **Correspondances: pour soprano et orchestre\*** [22']

Testuak / Textos: Rainer Maria Rilke, Prithwinda Mukherjee, Alexandre Solzhenitsyn, Vincent van Gogh

Argitaletxea / Edita: Schott Music GmbH & Co, Kg

3

- I. Gong I
- II. Danse cosmique
- Interlude
- III. Slava et Galina...
- IV. Gong 2
- V. De Vincent à Théo...

||

### **RICHARD STRAUSS** (1864-1949)

#### **Sinfonía doméstica, TrV 209, Op.53\*** [44']

Argitaletxea / Edita: Boosey & Hawkes — Bote & Bock GmbH & Co.

- I. Introduction
- II. Scherzo
- III. Wiegenlied
- IV. Adagio
- V. Finale

\*Lehen aldiz interpretaturiko obra  
Obra interpretada por primera vez

**A**zken hilabeteetan gizakiaren hainbat alderdiri behatu ondoren, **Robert Treviñok** giza esperientziaren beste alderdi bat erakutsiz amaituko du gaur 23/24 Denboraldia: bizitza pribatua. Lehenik eta behin, Henri Dutilleuxen eskutik. Hark, *Correspondances* lanean, gutunen zatiak hautatu zituen eta bost abesti osatu zituen. Nazioarteko proiekziorik handiena duten euskal sopranoetako batek abestuko ditu horiek, **Elena Sancho Peregek**. Eta gero, Richard Straussen *Sinfonia domestikoarekin*. Horrek soinu-abentura bilakatzen ditu familia-bizitzako pozak eta ezbehar txikiak.

XX. mendearren lehenengo eta bigarren erdiaren artean erdibidean harrapatutako konpositore bat izan zen **Henri Dutilleux**. Erromako Sariaren azken irabazlea izan zen, Bigarren Mundu Gerraren aurretik. Estilo gaztea zuen orduan, eta Debussy eta Ravel zituen inspirazio-iturri. Gerra amaitu zenean, ordea, gazteria abangoardista topatu zuen haren inguruan, Boulez buru zela. Ez zen harekin oso identifikatuta sentitzen baina, hark bultzatuta, ezaugarri aurrerakoi eta modernista ugari hartu zituen Dutilleuxen musikak.

Haren aldi berantiarreko sorkuntzarik ederrenetako bat da ***Correspondances***. Ordurako, soinuen destilazio geldo baten antza zuten haren sorkuntza-prozesuek. 20 urte behar izan zituen *Correspondances* idazteko. 1983an egin zioten enkargua Berlingo Filarmonikoak eta Simon Rattlek, eta 2003an estreinatu zuten, Dawn Upshaw sopranoarekin. Charles Baudelaire «poeta madarikatuaren» itzala proiektatzen da obraren gainean eta, zehazki, haren poema batena: *Les fleurs du mal* (*Gaitzaren loreak*). 1857an argitaratu zuen poema-liburua, eta mugimendu sinbolistaren sorrerako testuetako bat dela esaten da. Mugimendu horrek uko egiten zion errromantikoaren sentimentalismoari eta, Paul Roberten hitzetan, «kanpoko itxuraren atzean dagoena, ukiezina eta adierazezina» bilatzen zuten. Bilaketa estetiko horren adibide bikaina dira Baudelaireren *Correspondances* lanaren lehen lerroak: «Tenplu bat da natura, non pilare bizek / ihes egiten uzten dieten batzuetaen nahasgarriak diren hitzei». Eta Dutilleuxek esaten zuen liluratu egiten zuela Baudelaireren ideia honek: «jainkotiarra, ezinbestean, deabruzko mundu batean topatzten du bere irudia».

Berak idatzitako *Correspondances* lanari buruz egindako iruzkin batean, Dutilleuxek modu esplizituan aipatu zituen «[Baudelairek] iradokitzen zituen sinestesiak». Hain zuzen ere, poeta frantsesak sinestesia poetikoan sinesten zuen, non estimuluak eta erantzun sentsorialak nahastu egiten diren, eta literarioak ikusizkoa eta entzutezkoa besarkatzen dituen. Margolari ospetsu baten biloba zen Dutilleux, eta, Baudelaireren adibideari jarraituz, pintura iradoki zuen Vincent van Goghak Theo anaiari idatzitako eskutitz baten bidez. Lerro hauetan: «Gaez irteten naiz izarrak margotzera... izarrak eta zero argiak sentitzen, goian, mugagabe eta distiratsu». Hain zuzen ere, *Gau izartsua* koadro ospetsuari egindako erreferentzia bat da. Dutilleuxek margolan horri eskainitako komposizio bat sortu zuen 1978an (*Timbres, espace, mouvement*), eta haren elementu batzuk berreskuratu zituen *Correspondances* laneko azken abestian. Van Gogh-en eskutitz horrez gain, Aleksander Solzenitsiek Mstislav eta Galina Rostropovitxi bidalitako eskutitzen zatiak ere erabili zituen Dutilleuxek, baita Prithwinda Mukherjeeren eta Rainier Maria Rilkeren poesien zatiak ere. Testu horiek guztiak elementu bateratzaile bat zuten haren ustez: «Pentsamendu mistikorako joera».

Konpositore frantsesak azaldu zuenez, «instrumentu-familia bati edo besteari pribilegioak ematen dizkion orkestrazio bitxi samar baten emaitza da pasarte hauetako bakoitza. Hala, Vincent Van Goghak iradokitako irudiak eta koloreak, nagusiki, egurren

tinbreetan islatzen dira, baita metalen atalean ere. Solzhenitsiek Slava eta Galinari bidalitako eskutizean hari-instrumentuak gailentzen dira, bereziki, biolontxeloak; sarritan, biolontxeloen kuartetoak. *Danse cosmique*-ren kasuan, orkestra osoak inguratzen du abeslaria». Bestetik, Gong izeneko bi piezak preludio eta interludio baten gisakoak dira eta, Dutilleuxen arabera, «gutxi gorabehera orkestraren erdia» erabiltzen dute.

Bere konposizioetan elementu autobiografikoak sartzea gustatzen zitzzion **Richard Strauss** eta, hainbat kasutan, bere emaztearekin, Pauline de Ahna sopranoarekin, zuen harremanak zuzenean eragin zion haren sorkuntzen edukiari. 1887an ezagutu zuten elkar, 23 eta 24 urte zituztenean, eta handik hilabete batzuetara *Don Juan* poema sinfonikoa konposatu zuen Straussek. Bertan, protagonista emakumezaleak benetako maitasuna ezagutu zuen, azkenean. 1923an, *Intermezzo* opera idatzi zuen Straussek, Paulinek —izaera leherkorra zuen, antza— dibortzioa eskatu ondoren, konpositorea desleiala zela susmatuta. Eta haren bizitzaren amaieran, 84 urte zituela, Straussek maitasun-mezu bat bidali zion *Azken lau abestiak* lanean. Azken abestia, *Lied, Im Abendrot* (Gainbeheran) izenekoa, lerro hauekin hasten da: «Eskutik helduta zeharkatu ditugu beharra eta zoriantasuna; zelai isilean hartuko dugu atseden».

**Sinfonia domestikoa** 1904ko martxoaren 21ean estreinatu zen New Yorkeko Carnegie Hallen, eta nolabaiteko polemika eragin zuen: konpositore alemaniarrak heroi gisa aurkeztu zuen bere burua aurreko lanetan, esaterako, *Ein Heldenleben* izenekoan. Batzuei pretentzioso samarra iruditu zitzaien hori, baina oraingoan haren familia-bizitzaren erretratu bat zen, «egunerokoa eta hutsala», Alemaniako aparatu sinfoniko errromantiko osoaren hizkerarekin. Baina Strauss ziur zegoen egunerokotasunaren benetako ospakizun moderno bati eman ziola forma. Bertan, munduaren berezko sakontasuna erakusten saiatu zen. «Zer izan liteke ezkontza-bizitza baino serioagoa?», esan zion Roman Rolland musikologoari. «Ezkontza da bizitzako gertaerarik sakonena, eta elkartzte horren poz espirituala handitu egiten da seme-alaba baten etorrerarekin. Ezkontza-bizitzak izatez bere umorea du, eta hori ere sartu nuen obran, animatzeko».

Konposizio-prozesuan zehar, Straussek poema labur bat idatzi zuen, *Sinfonia domestikoaren* ildoa laburtzen duena: «Nire emaztea, nire semea, nire musika, / natura eta eguzkia, nire poza dira. / Lasaitasun pixka bat eta umore asko, / eta deabruak ere ezin dit ezer erakutsi! / Fa maiorra, lehenengo abestia: Aita bidaiatik itzuli da, nekatuta. / Si maiorra, bigarren abestia: Ama. / Re maiorra, hirugarren abestia: Bubi, bien nahasketar bat, baina aitaren antz handiagoa du. / Hiruk paseoan dabilta, aire zabalean. / Gaez, etxeko mahai erosoa. / Amak ohera eraman du Bubi. Aita lanean ari da. Aita eta ama bakarrik: *scène d'amour*. / Goizez: Bubi negarrez ari da, esnatu delako pozik, / eta gero borroka eta eztabaidea apur bat (ama hasi da, baina aitak amaitu du). / Adiskidetzea eta amaiera zoriontsua». Rollandi esan zionez, «nireemoziak musikaren bidez adierazteko eta garatzeko aitzakia baino ez da programa; ez da eguneroko gertakari jakin batzuen deskribapen musical soila». Dena den, Strauss harro zegoen, lan honekin gaitasun deskribatzailea lortu zuelako, «musikaren bidez labana bat eta sardexka bat bereiztea» ahalbidetzen ziona.

**T**ras observar en los últimos meses las múltiples facetas del ser humano, **Robert Treviño** corona hoy la Temporada 23/24 mostrando otro ámbito de la experiencia humana: la vida privada. Primero de la mano de Henri Dutilleux, que en sus *Correspondances* seleccionó fragmentos de cartas para dar forma a cinco canciones que cantará una de las sopranos vascas con mayor proyección internacional, **Elena Sancho Pereg**. Y luego, con la *Sinfonía doméstica* de Richard Strauss, que transforma en aventuras sonoras las alegrías y los pequeños percances de la vida familiar.

**Henri Dutilleux** fue un compositor atrapado a medio camino entre la primera y la segunda mitad del siglo XX. Él fue el último ganador del Premio de Roma antes de la Segunda Guerra Mundial, practicando un estilo juvenil que bebía abiertamente de Debussy y Ravel, pero al finalizar la guerra se encontró rodeado de una juventud vanguardista, liderada por Boulez, con la que no se sentía plenamente identificado pero que le empujó a adoptar en su propia música numerosos rasgos progresivos y modernistas.

**Correspondances** es una de las creaciones más hermosas de su periodo tardío, cuando sus procesos creativos se asemejaban ya a una lenta destilación de los sonidos. Escribir *Correspondances* le llevó un total de 20 años, desde que en 1983 recibió el encargo de la Filarmónica de Berlín y Simon Rattle hasta que la estrenaron en 2003 junto a la soprano Dawn Upshaw. Sobre la obra se proyecta la sombra del «poeta maldito» Charles Baudelaire, y concretamente de uno de los poemas de *Les fleurs du mal* (Las flores del mal). Publicado en 1857, el poemario es considerado uno de los textos fundamentales del movimiento simbolista, que renegaba del sentimentalismo de los románticos para perseguir, según Paul Robert, «lo que hay detrás de las apariencias externas, lo intangible e “inexpresable”». Los dos primeros versos de *Correspondances* de Baudelaire son un perfecto ejemplo de esta búsqueda estética: «La naturaleza es un templo donde los pilares vivos / dejan escapar las palabras a veces confusas»; y Dutilleux decía sentirse fascinado por la idea baudelariana de que «lo divino inevitablemente encuentra su imagen en un mundo diabólico».

En su comentario a su propia *Correspondances*, Dutilleux hace también referencia explícita a «las sinestesias que [Baudelaire] evocaba». Efectivamente, el poeta francés creía en una sinestesia poética en la que los estímulos y respuestas sensoriales se mezclan, y en la que lo literario abraza lo visual y lo auditivo. Dutilleux, que fue nieto de un destacado pintor, sigue el ejemplo de Baudelaire al evocar la pintura a través de una carta que Vincent van Gogh escribió a su hermano Theo, que contiene estas líneas: «Salgo por la noche a pintar las estrellas... a sentir las estrellas y los cielos claros, arriba, infinitos y brillantes». Efectivamente, es una referencia a la célebre *La noche estrellada*, a la que Dutilleux ya había dedicado una composición en 1978 (*Timbres, espace, mouvement*) y de la que recupera algunos elementos en la última de las canciones de *Correspondances*. Además de esta carta de Van Gogh, Dutilleux emplea fragmentos de cartas de Alexander Solzhenitsyn a Mstislav y Galina Rostropovich, y de poesías de Prithwindra Mukherjee y Rainer Maria Rilke. Todos estos textos tienen, para él, un elemento unificador: «Su inclinación hacia el pensamiento místico».

Según explica el compositor francés, «cada uno de estos episodios es objeto de una orquestación ligeramente peculiar, que privilegia una u otra familia de instrumentos. Así, las imágenes y los colores evocados en la carta de Vincent Van Gogh encuentran su eco principalmente en los timbres de las maderas, así como en la sección de metales. La carta de Solzhenitsyn a Slava y Galina está respaldada de manera dominante por las cuerdas, especialmente por los violonchelos, a menudo un cuarteto de violonchelos. En cuanto a la *Danse cosmique*, la cantante se encuentra rodeada por toda la orquesta». Por otra parte, las dos piezas llamadas *Gong*, son una especie de preludio e interludio que emplean, según Dutilleux, «aproximadamente la mitad de la orquesta».

A Richard Strauss le gustaba introducir elementos autobiográficos en sus composiciones, y en varias ocasiones su relación con su esposa, la soprano Pauline de Ahna, marcó directamente el contenido de sus creaciones. Ambos se conocieron en 1887, cuando tenían 23 y 24 años, y unos meses después Strauss compuso el poema sinfónico *Don Juan*, en el que el mujeriego protagonista conoce por fin el amor verdadero. En 1923, Strauss escribió la ópera *Intermezzo* tras un capítulo en el que Pauline —quien debía de tener un carácter explosivo— le pidió el divorcio tras sospechar que el compositor le estaba siendo infiel. Y ya al final de su vida, con 84 años, Strauss le dirigió un amoroso mensaje en sus *Cuatro últimas canciones*, cuyo último *Lied*, *Im Abendrot* (En el ocaso), comienza con estos versos: «Hemos atravesado necesidad y felicidad cogidos de la mano; descansamos del camino en el campo silencioso».

La *Sinfonía doméstica* se estrenó el 21 de marzo de 1904 en el Carnegie Hall de Nueva York, y causó cierta polémica: el compositor alemán ya se había presentado a sí mismo como un héroe en obras anteriores como *Ein Heldenleben*, lo que pareció a algunos un tanto pretencioso, pero ahora se trataba de un retrato de su vida familiar, «cotidiana y banal», con los ropajes de todo el aparato sinfónico romántico alemán. Pero Strauss estaba convencido de que había dado forma a una verdadera celebración moderna de lo cotidiano, en la que trataba de revelar la profundidad inherente a lo mundano. «¿Qué podría ser más serio que la vida matrimonial?», le confesó al musicólogo Roman Rolland. «El matrimonio es el acontecimiento más profundo de la vida, y la alegría espiritual de tal unión aumenta con la llegada de un hijo. La vida matrimonial tiene naturalmente su humor, que también inyecté en la obra para animarla».

Durante el proceso de composición, Strauss escribió un poemita que resume los derroteros de la *Sinfonía doméstica*: «Mi esposa, mi hijo, mi música, / naturaleza y sol, son mi alegría. / Un poco de calma y mucho humor, / ¡y ya ni el diablo puede enseñarme nada! / Fa mayor, primer tema: Papá regresa del viaje, cansado. / Si mayor, segundo tema: Mamá. / Re mayor, tercer tema: Bubi, una mezcla de ambos, pero se parece más a Papá. / Los tres dan un paseo al aire libre. / Ya de noche, en la acogedora mesa familiar. / Mamá lleva a Bubi a la cama. Papá trabaja. Papá y mamá solos: *scène d'amour*. / Por la mañana: Bubi llora, alegre despertar, / y luego un poco de pelea y discusión (Mamá comienza, pero Papá termina). / Reconciliación y final alegre». A Rolland le aseguró que «el programa no es más que un pretexto para la expresión puramente musical y el desarrollo de mis emociones, y no simplemente una descripción musical de hechos cotidianos concretos», pero Strauss se vanagloriaba también de haber alcanzado, con esta obra, una capacidad descriptiva que le permitía «diferenciar musicalmente entre un cuchillo y un tenedor».

7

---

MIKEL CHAMIZO

HURRENGO ABONU KONTZERTUA • PRÓXIMO CONCIERTO DE ABONO

# RACHMANINOFF STRAUSS

Ekaina 18 Junio | 19:30



24

# EUSKADIKO ORKESTRA

25



**ROBERT TREVINO**  
Zuzendari titularra — Director titular

ALDAVE | ARZAMENDI | BRAHMS | BERLIOZ | BRUCH | BRUCKNER | GLANERT |  
MAHLER | PROKOFIEV | SAARIAHO | SAINT-SAËNS | SCHOENBERG | SCHUBERT |  
SCHUMANN | SIBELIUS | SCRIBABIN | STRAUSS | SZYMANOWSKI